

## **COVID ICO linean abalatutako eragiketen epemugaren luzapena**

2022ko ekainaren 21eko Ministro-Kontseiluaren Akordioaren bitartez, enpresei eta autonomoei abalatutako eragiketen epemuga luzatzeko posibilitatea onetsi da, 8/2020 Errege Dekretuan, martxoaren 17koa, eta 25/2020 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraikiz.

Abalatutako eragiketak dituzten bezeroek epea luzatzea eskatu dezakete edozein momentuan, eragiketa-epea burutu arte. Luzapen hori, gehienez, zortzi edo hamar urtekoa izan daiteke, hasierako formalizazio-datatik hasita, bezeroek jasotako laguntza publikoen zenbatekoaren arabera. Akordioaren baldintzen arabera, Bankuak ICO-ri ordaintzen dion abalaren kostua handiagotuko balitz epea luzatzearen ondorioz, kostu horren arduraduna mailegu-hartzailea izan liteke.

Eskaera Akordioan ezarritako baldintzekin bat etorri behar du, eta hasierako epemugaren data baino hilabete lehenago bidali behar da gauzatu ahal izateko. Xedapen hauek eta barne-kudeaketan epeak direla eta, eskaera nahiko aurrerapenarekin bidali behar zaio Bankuari. Luzapen-eskaera bakar bat egin daiteke eragiketa bakoitzeko.

Bankuak eskaera onartu edo baztertu dezake bere barne-prozedura eta -politiken arabera.

Akordio honen testu osoa irakurtzeko, erabili hurrengo URL:

[https://www.boe.es/eli/es/res/2022/06/27/\(3\)](https://www.boe.es/eli/es/res/2022/06/27/(3))

Ekonomia eta Enpresen Laguntzaren Estatu-Idazkaritzaren ebazpena (2022ko ekainaren 27koa), Ministro-Kontseiluaren Akordioa (2022ko ekainaren 21ekoa) barne hartzen duena. Akordio honen bitartez, Kreditu Ofizialeko Institutuari agintzen zaio abalen epemuga luzatzera, 8/2020 Errege Dekretuaren 29. artikulua (martxoaren 17koa) eta 25/2020 Errege Dekretuaren 1. artikulua (uztailaren 3koa) jarraituz.